

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko apirilak 30 · 1139. zenbakia

ELKARTASUNA LEHEN LERROAN



Zure zerbitzura une hauetan ere

EUKi

AHOLKULARITZA

Ifar-kale, 1
943-204291

**ZERBITZU
INMOBILIARIOAK**

T. Etxebarria, 1
943-200358


ARTEKARITZA

T. Etxebarria, 1
943-204299



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Okklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



#Eibarrenbadakagu

Covid-19aren hedapenaren aurretik, tokiko merkataritzak beste gaitz bat zuen: Internet bidezko merkataritza elektronikoa. Alarma egoeraren ondorioz, denda guztiak itxita daude, eta horrek, denda txikiek lehendik bizi zuten krisia areagotu egin du.

Tokiko edo gertuko komertzioari esker, dirua gure herrian mugitzen da, eta, modu horretan, kapitala herrian birbanatzen da, zuzeneko eta zeharkako zergen bidez. Saltoki txikiei laguntzen badiegu, denon artean herriko komertzioa babesten baldin badugu, denok irabaziko dugu, zalantza barik. Komunitate bat izan nahi badugu, eibartarra izatearen sentimendua benetakoa bada, elkarri lagundu beharko diogu.

“Euskeraz Primeran!” kanpainaren bidez, ...eta kitto! Euskara Elkartea herriko dendari eta ostalarientzat hainbat ekimen bulbatzen ditu urtean zehar; eta, bizi dugun egoera kontuan hartuta, #Eibarrenbadakagu eta “Eibarregastaukot kanpainak abiatu ditu.

#Eibarrenbadakagu sloganak kontzeptu hau azaldu nahi du: Eibarren daukaguna ez dugula beste nonbait bilatu behar, Eibarren dugula behar dugun guztia. Herrian erosten badugu, denok irabaziko dugula. “Nik Eibarren gastaukot”, eta zuk?

...eta kitto! Euskara Elkartea

“Nik beldur handiagoa izango nioke aldaketa klimatikoari koronabirusari baino. Badakit azken hau berehalakoa eta premiazkoa dela, baina aldaketa klimatikoak kalte handiagoak eragingo ditu pandemiak baino. Bien arteko aldea argi dago: lehenengoa ez dugu begi bistan eta ezta gure jarrerak aldatzeko pizgarrikeri ere, bigarrenaren kasuan gure askatasunari mugak jartzea otzanegi onartzen dugun bitartean. XVIII. eta XIX. mendeetan Europako hiriak infekzio iturriak ziren eta, aberatsei ere egiten zieten, azken hauek ondo arduratu ziren txiroenek ere osasun ona izan zezaten, langileei formazioa eskaintzea produktibitateko mesedegarria den neurri berean. Gizateriaren historian hobekuntzak egiteko pizgarriak askoz ere garrantzitsuak izan dira eskuzabaltasuna baino; aldi berean, guztion amildegia izan daitekeenari diogun beldurrak elkarlanerako proiektuak baino gehiago astintzen gaitu”.

DANIEL INNERARITY, filosofoa

“*Big brother* formatuari herrialde gutxitan eats diote, baina askotariko aldaerak daude, eboluzio bat egon da. Herbehereetan eutanasia bat eman dute zuzenean, iragarkiekin, esate baterako. Formatu horiek denborarekin programazioarekin nahasiz joan dira: telebistek lehen ez zituzten onartzen sakelakoekin grabatutako irudiak, eta gaur egun ohikoak dira. Informazioaren DNAn dago errealtatearen ikuskizuna. Hori albistegietan eta bestelako saioetan ikusten da. Politikariak ikuskizunaren parte nola bilakatu diren ere agerikoa da. Victor Jarak abesti batean esaten zuen belaunaldi iraultzaile batek belaunaldi askoz kontserbadoreagoa ekartzen duela gero. Baliteke hori gertatu izana. Telerrealitateak sortutako intimitatearen galera eta gizatasun falta ez lireratek gertatuko balio etikoz betetako gizarte kultur batean”.

ENRIQUE CASTELLO, Unibertsitateko irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MUN → Errespetuz ematen den musua. “Obispuari, eraztunian mun”.

MUN EGIN → Musua edo laztana eman, baina ez aurpegian. “Ogixa hastian mun egitten jako”.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA

Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA

Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Gurutze Gorria

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.450 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Egun bizi dugun eta ahoz-aho dabilen pandemiak egoera guztiz berezian barneratu gaitu, urterik urte prestatzen genituen hainbat ekintza eta programazio bertan behera laga behar izateraino. Horregatik, iaz data hauetan herrian bizi izandako hainbat gertakizun berreskuratuko ditugu, egoera normalago batean zelan moldatu ginen gogorarazteko. **Santa Kurutz jaiak** ospatu ziren asteburu berean egin ziren **Espainiako Gorteetarako hauteskundeak**, eta PSE-EE eta EAJ-PNV nagusitu ziren; **maiatzaren 1ean** sindikatuek bizitza jarri zuten erdigunean; eta Gipuzkoako **Elikagaien Bankuak** janari-bilketa hasi zuen supermerkatuetan. Kultura arloan, **Argazkilaritza Maiatzean**-ek hilabete osorako programazioa abiatu zuen, eta **Jabier Muguruzak** kontzertua eskaini zuen Coliseoan. Kirolean, azkenik, **Gallastegiren omenezko jaialdia** egin zen Astelenan, Eskozia la Bravaren eguna ospatu zuten eta Azkena Adahik foball-zaletuaren Kirolbet Liga irabazi zuen.

Argazkiak: 1- Santa Kurutz jaiak. 2- Argazkilaritza Maiatzean. 3- Errefuxiatuen aldeko dilista-bilketa. 4- Auto-istripua Arraguetan. 5- Eibar Escuderia garaile Sportech Kopan. 6- Espainiako Gorteetarako hauteskundeak





Txertoak ipintzen jarraitzen dutela jakinarazi dute erizainek

>>> Bihar amaituko da “Imunizazioaren Munduko Astea”. Aurtengo kanpainarentzat aukeratu duten goiburua #VaccinesWorkforAll da (hau da, txertoek denontzat funtzionatzen dute), txertoek populazio osoaren osasuna babesteko duten garrantzia nabarmentzeko. Arrazoi hori tarteko, Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialeko Txertaketa Batzordetik herritarrei gogorazi nahi diete garrantzitsua dela txertoa jartzeko gomen-dioak betetzea, bai haurrak txertatzeko egutegikoak zein helduenak, baita ere “biztanle talde zaugarrienetan, txertoa-

ren bidez prebenitu daitezkeen gaixotasunak izateko arrisku handiagoa dutenean”. Pandemia garaian lehentasunezko txertoak zeintzuk diren ere gogorazi dute: besteak beste, 15 hilabetera arteko haurren egutegikoak eta haurdun dauden emakumeenak.

Osasun zentroetan txerto horiek jartzen jarraitzen dute, eta “herritarrek jakin behar dute txertoa jartzera lasai joan daitezkeela eta joan behar dutela”. Txertoen inguruko zalantzak argitzeko, herritarrek euren erreferentziako erizainarekin jarri daitezke harremanetan.

Hainbat aldaketa odola emateko saioetan

>>> Odol-emaileen Elkar-teak jakinarazi duenez, odola emateko saioekin jarraitzen dute, baina hainbat aldaketa-ekin. Besteak beste, odola ematera doazen zein elkar-teko boluntarioen segurtasuna bermatzeko, odola ematea tokatzen den egunean bertan 943007888 telefonora (08:30etik 13:30era) deitu beharko da txanda eskatzeko. Odola emateko, berriz, Untzagako jubilatutxerara joan beharko da (ez ambulatortiora). Covid-19arekin ku-

tsatzeko arriskua saihesteko, normalean baino tarte gehiago gordeko da odol-emaileen artean, horregatik mugatuko dute saio bakoitzeko onartuko dituzten gehienezko odol-emaileen kopurua.

Hitzordua aurretik eskatu dutenak baino ez dituzte onartuko. Hurrengo saioak maiztazaren 14an eta 28an izango dira, 18:00etatik 20:00etara; ekainean, saio bakarra dago aurreikusita (11n); eta uztailean, berriz, 9an eta 23an izango dira.



ROCA
TEL. 943 20 80 06 CALBETON, 16
-EBAR-
Moda
Etixerako osagalak



Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea

Giokela

MUGIKA
HARATEGIA

Urkizu, 18
943120194



EPC enpresak sei langile kaleratu dituela salatu dute

>>> ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Azitaingo industrialdean dagoen EPC (Engine Power Components) enpresak sei langile kaleratu ditu. Enpresa batzordetik salatu dutenez, "enpresak Covid-19 birusak eragindako egoeraren aitzakiarekin" egin ditu kaleratzeak. Azaldu dutenez, aurreko barixakuan (apirilak 24) kaleratu zituzten sei beharginak urteetan aritu dira bertan lanean. Sindikatuak helarazitako idatziaren arabera, produkzio jeitsiera izan dutelako hartu du enpresak langile horiek kaleratzeko erabakia: "Lotsagarria iruditzen zaigu kaleratzeetara jotzea gaur egungo egoerari aurre egiteko neurri bakarra hori izango balitz bezala. Kaleratutako pertsonen eskubideak defendatuko ditugu eta enpresako lanpostuen etorkizunaren alde borrokan jarraituko dugu".

Apirilean ere ez da osoko bilkurarik egin

>>> Hilabete honetan ere ez da osoko bilkurarik egin. Alarma egoera dela-eta, udaleko lan-batzordeak ez dira bildu eta, beraz, ez da gai-zerrenda osatzeko behar besteko gairik egon. Martxoan erabaki zen, osoko bilkuraz gain, Tokiko

Gobernu Batzordearen, Lan Batzordearen eta Batzorde Aholkulariaren bilkurak aldi baterako etetea, Alkatetzako ebazpen bidez. Hurrengo bilkura egiteko data ezartzen denean, eibar.eus web orriaren bidez jakinaraziko dute.

Zaldibarren gogoratu zituzten aurten hil diren langileak

>>> Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira, mobilizazioak egin zituzten lantoki askotan, euskal gehiengo sindikalak deituta. Eguneko mobilizazio nagusia Zaldibarren, zabor-

tegiaren aurrean izan da eta, bertan desagertuta jarraitzen duten Alberto Sololuze eta Joaquin Beltranekin batera, aurten Euskal Herrian hil diren 29 langileak izan dituzte gogoan.



Jostunek egindako maskarillak doan jaso daitezke

>>> Juan Gisasola kaleko 4. zenbakian dauden jostunak maskarillak egiten ari dira, behar duenarentzat. Astelehen, eguazten eta barixakuetan, goizeko 10:00etatik 13:00era bitartean bertara joan eta doan jaso daitezke (materiala ordaintzen lagundu nahi duenak donatiboa egiteko aukera dauka). Orain arte egindako oihalezko maskarillak bakarrik helduentzat ziren, baina aste honetatik aurrera umeentzat neurri egokia dutenak ere badituzte.

**Traspasoan
jubilazioa
dela-eta**

OGI BERRI
CALBETON, 23

TEL 943 53 05 26

KINKILA
Creaciones Bebé

- Mertzeria
- Umeendako jantzigintza

943 70 23 29 Bidebarrieta, 16
creacionesbebe@live.com



Maiatzaren 4an hasiko da deseskalada

>>> Espainiako presidentek martitzeneko prentsurrekoan aurreratu zuenez, deseskalada probintziak edo uhartekak egingo da eta lau fase izango ditu. “Dena ondo badoa”, sei eta zortzi aste arteko iraupena izango du eta, beraz, ekaina amaitu baino lehen ez da Gobernuak “normaltasun berria” deitzen dion hori ailegatu. Konfinamendutik irtetzen hasteko plana mailakatua eta asimetrikoa izango dela nabarmendu zuen Sanchezek. “Ezin izango da probintzien arteko mugimendurik egin. Onartutako ekintzak norbera bizi den probintzian egin ahal izango dira bakarrik”. Zero fasea maiatzaren 4an jarriko dute martxan Estatu osoan. Hala ere, badirudi za-

patu honetan bertan jarduera fisikoa egiteko baimena izango dugula, baina oraindik ez dituzte baldintza zehatzak argitu.

Horrez gain, kirolari profesionalek eta federatuek barkarka entrenatzeko baimena izango dute, eta lehen fasean hainbat baldintzarekin zabalteko aukera izango dute lokal publikoak zeintzuk izango diren zehaztuko dute.

Lehen fasea maiatzaren 11n hasiko da: denda txikiak zabaldu ahal izango dira, baina ez merkataritza gune handietakoak. eta 65 urtetik gorakoek lehentasuna izango dute; hotelak eta ostatu turistikoak irekiko dira, baina gune komunak ezin izango dira erabili; elizak, meskitak... zabalteko baime-

na izango dute, baina bakarrik edukieraren herena erabilita; garraio publikoan maskara erabiltzea gomendatuko dute, baina ez da derrigorrezkoa izango.

Bigarren fasean, maiatzaren 25etik aurrera, jatetxeak ireki ahal izango dira, edukieraren herena bakarrik erabilita. Gauza bera gertatuko da erakusketa gela eta antzokiek. Ikasturte berria irailean hasiko da. Iraila baino lehen, hiru salbuespenetarako irekiko dira ikastetxeak: selektibitatea egiteko, errefortzuetarako klaseak emateko, eta nork zaindu ez duten sei urtetik beherako haurrak joateko. 50 pertsona baino gutxiagorekin kultur ekitaldiak egin ahal izango dira leku itxietan, eta 400 pertsona baino gutxiagorekin aire zabalean eta eserita. Sanchezen arabera, “normaltasun berria” laugarren fasean sartzen gairenean hasiko da.

AUTUAN

AGIRI OFIZIALAK BERRITZEKO EPEAK ALDATU DIRA

Alarma egoera dela eta, martxoaren 14an onartutako dekretuaren arabera hainbat aldaketa egon dira agiri ofizialak berritzeko epeetan. Orohar, normalean baino denbora tarte gehiago izango dute herritarrek, dokumentazioa berritu ahal izateko tramiteetarako. Izan ere, iraugitze data pasatuta egon arren, ez diote horri kasurik egingo eta, beraz, ez dute zigorrik ezarriko:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN): alarma egoerak irauten duen bitartean iraugitze-datara ailegatu edo hori pasatuz gero, urtebetez luzatuko dute agiriaren balio-tasuna (2021eko martxoaren 13ra bitartean).

- Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT): alarma egoera pasatu eta azterketak egiten dituzten tailer mekanikoak zabaldu arte, hori egiteko derrigortasuna bertan behera laga dute.

- Gidatzeko baimena: alarma egoerak irauten duen bitartean iraugitzen diren gida baimen guztiek balio-tasuna izaten jarraituko dute, berritzeo aukera izan arte.



ELENA ALBERDI LOITI



“Zure irrifarrak iraungo du gure bizitzak eta bihotzak argitzen. Beti gure bihotzean”

ANeren lagunak





Etorkizuna kolorez marrazten

Aurreko urteetan bezala sindikatu bakoitzak Maiatzaren Lehenaren aurretik nahiz egunean bertan bere ekimen propioak antolatuko baditu ere, aurten irudi komun bat partekatuko dute euskal gehiengo sindikala osatzen duten sindikatu guztiek (LAB, ELA, ESK, STEILAS, HIRU eta ETXALDE), egungo salbuespen egoeran mezu komuna emateko. Horrekin batera, leiho eta balkoietan Maiatzaren Leheneko ikurra jartzeko deia egin dute, “langileon indarra eta aldarrikapena ikustarazteko”.

Sindikatu bakoitzak Maiatzaren Lehenaren inguruan ekimen propioak antolatuko baditu ere, aurten irudi komun bat partekatuko dute euskal gehiengo sindikala osatzen dutenek, gaur egungo salbuespen egoeran mezu komuna emateko.

Adierazi dutenez, “koronabirusaren krisiak, eta aurretik bizi dugun krisi sistemikoak, sindikalgintzaren erantzuna behar du. Egoera honetan, gehiengo sindikaletik deialdi bat egiten diogu langile klaseari: gure leihoetan eta balkoietan Maiatzaren Leheneko ikurra jartzeko deia; langileon

indarra eta aldarrikapena ikustarazteko”.

Egoera larria izan arren Maiatzaren Lehena aldarrikatu eta ospatu nahi dute, “modu koloretsu batean. Kapitalak marraztu nahi digun etorkizun beltzaren aurrean, guk bizitza erdigunean jarriko duen etorkizun koloretsu eta dinamikoa marraztu nahi dugu”.

Irudi hori sindikatu bakoitzak bere webgune eta sare sozialetan argitaratzen dituen kartel digital, bideo eta abarretan egongo da. Horrekin batera, herritarrei dei egiten diete, “aipatutako irudia nork bere balkoian edo leihoan jar-

Maiatzaren Leheneko ikurra leiho eta balkoietan ipintzeko deia egin dute sindikatuek

tzeko, izan inprimatuta, izan eskuz egina”.

Maiatzaren Lehena oso egoera berezian datorrela dio Garbiñe Aranburu LABeko

idazkari nagusiak: “Ezingo gara mobilizatu modu normalizatu batean, baina langile klasearen harrotasuna nabarmenduko dugu”. Biharko auto karabana, streaming bidezko jarduerak eta balkoietako protestak aurreikusi dituzte. Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiaren arabera, berriz, “bizitzarako funtsezkoak diren sektoreei balioa eman behar zaie, lan horiek orain arte prekarizatuta egon baitira”. Eta CCOO eta UGT sindikatuek, berriz, aurtengo Maiatzaren Lehena langileei omenaldia egin eta eskerrak emateko baliatuko dute.

Maitte
arraindegia
Romualdo Galdós, 14
Tel.: 943 25 41 69

Catalana Occidente Seguros
ERANTZUNIZUM ZIBILA / AUTOAK
BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN
ASEGURUA / ISTIRBU BANAKAKO ETA
KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK

EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkoa. C046815351532K

Eibarko Txikito, 8
943 200 908 / 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

ASEGURUAK



Batxilergorako aurrematrikula zabalik:

On-line, maiatzaren 4tik 21era

Ikastetxean, maiatzaren 11tik 22ra*

*osun-agintarien orientabideen eta balizko alarma-egoera luzatzeak ezar lezakeenaren arabera.



Jardifleta 3 Eibar Tel.:943 899262 E-mail:012055aa@hezkuntza.net

web: <http://www.eibarbhi.hezkuntza.net>



Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA
EIBAR, ELGOIBAR ETA DURANGON



943 15 06 22

WWW.INFORMATICANDO.EUS



DENON ARTEAN
LORTUKO DUGU
ANIMO DENORI!

Txikiteoa, kanpotarrek ekarritako ohitura

Garai baten ez zen txikiteorik egiten Eibarren. Kanpotik etorri ziren lanbide ezberdinetako beharginek ekarri zuten ohitura hori. "Guarnizionerua"ri "astuen sastia" esaten zioten. Aurretik tabernara joan eta, kontuak esanez, ardoa baso handi batetik edatea zen ohitura.



Horacio Sarasketak 1944an egindako irudia, Calbeton kaleko Bar Bodegan egon zena eta "Arrateko Zelaiko Kantuak" iragartzeko erabili zena.




Bartolo Arriola Garate
(1912 – 2012)

Mendaron jaio arren, zazpi urte besterik ez zituela etorri zen Eibarrera bere familia guztiarekin batera. Eibarko euskara darabil. Gerra aurreko kontuak oso ondo gogoratzen ditu: Eibarko kaleak, presak, errotak, eskolak, jolasak, kirolak eta abar. Buru argia du eta hizlari bikaina da; Eibarko historia eta hizkera jasotzeko hainbat proiektutan hartu du parte: "Eibarrera jatorraren bidetik", "Eibartarren Ahotan" eta abar. 1962. urtean "Zatixa" elkarte gastronomikoa sortu zuten. Elkarrizketarik gehienak elkarteetan bertan egin izan zaizkio. Elkarrizketa gehienetan Agustin Arana dauka lagun.

Bartolo Arriolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

"Eibarren txikiteorik ez huan ezagutzen orduan. Gerra aurrian ezagutu zuan honetxek, kanpotarrak, erdardunak etorri ziran Eibarrera, mordua. Honek Tapizero, (...) ebanista ta, holako ofiziuak guarnizionerua ta... esateko, konparaziño baten. Guarnizioneruari "astuen sastia" esaten jakon Eibarren, zuan astuendako trastiak egitten zittuana, eta astuen sastia esaten jakuen. Holakotxe ofiziuak, baiña erdaldunak zittuan, haretxek ekarri jittuan txikiteua Eibarrera. Baiña Eibarren ohitturia zan illuntzian juan tabernara ta baso haundixa, jarri eta hantxe tertulixan, batzuek eraten zuten gehixago, beste batzuek gitxiago, segun zenbat diru zekan ta zer kapazidade zekan... haxe izaten zuan baiña baso haundixa. Egunero leku batera juaten zuan pertsona bakotxa, ez zuan hori, kaleko rekorrido hori ez zuan ezagutzen, gero, gerra ostian gero gehittu egin zuan hori, generalizau".

E
IBARTARREN




Eguerdian baso txikia eta gauean baso handia

Eguerdian egiten zen txikiteoan ardo beltza edaten zen. Olibak beti izaten zituzten. Txikiteoa merkea zen. Gauean baso handiagoa jartzen zuten. Denetik prestatzen zuten jateko. Jaietan bete-beteta egoten zen taberna.



Asunción Larraza Zubiria
(1914 – 2002)

Jose Mari Larraza eta Juana Zubiriaren alaba. Gerra aurrean Calbeton kalean bizi zen eta bere aitaren tabernan (Jose Mari Taberna) egiten zuen beharra. Jose Mariren Taberna Frontoi Zaharraren alboan zegoen eta oso ezaguna zen. Ama, ahizpa eta bera aritzen ziren tabernan.



Asunción Larraza Zubiriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Eguardikuari zelan esaten jakon?] Txikiteua. [Eta zer hartzen zan, ardu zurixa?] Ez, ardu baltza. Holakotxe txikituak ziran, esango detsuet nik, holako formakuak, basuak ziran... [txikixak] eta holatxe botatzen jakuen, kafeterixakin... Zenbat zarie? Ba hamalau, edo hogei eta... daneri bota eta edaten zebe, ta azeitunak beti eukitzen genduzen, azeituna onak zekagun eh, onak ekartzen zeskuzen, kajak azeitutenak (...). Jaten zebe azeitunak, segittuan, repetidu be egitten zebe txikitu, batzuetan. [Zenbat balixo zebe txikituak orduan?] Txikituak orduan zenbat balixoko zebe ba? Diez centimos, o 15, vete tu a saber! Ezebez! Barato. [Gero gabian bai, txikiteua baso haundixakin esan dozu... orduan be ardu baltza eraten zan?] Bai, bai, bai, baltza! [Askotan entzun dogu guk zurixa, ‘el blanqueo’ edo...]. No, no, no, no, no, vino tinto siempre, a la noche tambien. Yo se bien que hemos tenido en muchos años el bar. Vino tinto. Jatekuakin eta... Tripakixak, mihia salsan, o bakillaua.... Amak danetik ipintzen zebe, eskatzen zebe eurak, serbidu ta jan. Ta postria, frutia, edo zeozer nahi zebe, ta gero kafia hartzen zebe, koñaka, kopa, que no faltase el cognac, eh?”



Gaur goizean egin du doktore-tesiaren defentsa Oier Araolazak. HIRUKA

<<< OIER ARAOLAZA • Dantzaria eta antropologoa >>>

“Euskal dantza ezin da joan gizartearen atzetik, baina oso zaila da aurretik joatea”

Gaur, Dantzaren Nazioarteko Egunaren bixamonarekin, Oier Araolaza dantzari eta antropologoak ‘Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntza’ izeneko doktore-tesia defenditu du. Euskal dantzetan indarrean izan ditugun genero-identitateak eta rol estereotipatuak noiz eta nola eraiki ziren ikertu du, eta euskal dantzaren munduan mugarrria izan daitekeen lana osatu.

Nondik abiatu zinen euskal dantza eta genero identitatearen gaia lantzeko?

Batetik, unibertsitatearekin zerbait egin nahi nuen, unibertsitateak dantzaren hutsunea duelako neurri batean. Dantza ez dago beste alor batzuek bezain ordezkatuta edo landua, eta unibertsitateari mesede egin diezaioke dantza hor egoteak. Eta bestetik, dantzaren alorrari ere komeni zitzaion uniber-

tsitatearen mundua ikusteko modu eta ikasteko sistema edo akademia hori. Gero, gaia aukeratzeko orduan, azken urteotan euskal dantzaren alorrean hainbat aldaketa gertatzen ari direla ikusten nuen eta gaia lantzeko momentu aproposa iruditu zitzaidan. Aldaketa momentuak mamitsuak izaten dira. Ikerketak beste sasoi batera eramanez, baina oso lotua dago gaur egun gertatzen ari denarekin.

Gizartean ikuspegi oker bat sustraituta dagoela esan izan duzu. Zein ikuspegi da?

Hor bazegoen ideia bat, sasoi batean euskal dantzan emakumeek dantza egiten ez zutela esaten zuena, behintzat dantza bereizgarrienak. Hori ez dator bat aurreko belaunaldien eta gure eguneroko praktikarekin, baina horri honelako azalpen bat ematen zitzaion: “Emakumeek gaur egun dantza egiten

dute, baina ez sasoi batean dantza egiten zutelako, baizik eta gaur egun dantza egin dezaten beraientzako pentsatutako dantza batzuk sortu direlako, eta gizonezkoek egiten zituzten beste dantza batzuk emakumeek egiteko egokitu direlako”. Ikuspegi horrek indar handia izan du, eta badu oraindik, eta alde handia dago eguneroko praktikarekin alderatuz.

Eguneroko praktika eta ikuspegi hura hain ezberdinak badira, nola gailendu da ikuspegi hura?

Hori saiatu naiz ulertzen. Lehendik datorren joera da, geratuko ez dena, baina sasoi zehatz batean asko azeleratuko zena. Errestaurazio aroari buruz nabil, Bigarren Karlistaldia amaitu (1974 inguruan) eta Espainiako Gerra Zibila hasi arteko sasoiak. Hamarkada horietan euskal dantzek eraldaketa eta sorkuntza fase bat bizi zuten, eta indarrean zeuden genero ikuspegiak dantzetan proiektatzen dira. Beraz, azertu nahi izan dut nola den posible praktikarekin bat ez datorren ideia bat jaurtitzea eta, ideia ukatu ordez, adierazpen horrek laguntzea praktika hori eraldatzen. Autobetetzen den iragarpena da.

Gaur egun genero bereizketa horrek indarrean jarraitzen du?

Bai. Nahi barik irtetzen zaizkigu eta inertziaren pisu handia dute. Euskal dantza ezin da joan gizartearen atzetik, baina oso zaila da aurretik joatea. Gizartean bereizketak egiten ditugu eta horren isla da dantza.

“Orain dela 100 urte emakumeek txapela janzten zuten dantza egiteko”



Zure lanak genero bereizketa horrekin behingoz amaitzen lagunduko du?

Hori da ideia. Gauzak ezin ditugu egun batetik bestera aldatu, baina gauzak azalduz eta kontrastatuz bagoaz bidea egiten poliki-poliki. Askotan oso gauza errazak dira. Adibidez, gaur egun txapela jartzea genero marka da, gizonezkoen janzki bezala identifikatzen dugu, baina orain dela 100 urte

emakumeak dantzara ateratzen zirenean dantzarako jantziak janzten zituzten eta janzkietako bat txapela zen. Kontestu horretan txapela ez zen gizonezkoen janzki bezala identifikatzen.

Mutilak dantzatik gero eta urrutiago daudela esan izan duzu. Nola gertatu da?

Hori tragedia bat da, ez bakarrik dantzarentzat, batez ere gizonezkoentzat. Maskulinitate

eredu oso estua eraikitzen ari da eta eredu horren baitan gero eta ezaugarri gutxiago onartzen dira. Gizonezkook gure kulturaren oinarriko hainbat ezaugarri ukatzen dizkio geure buruari. Gizarte guztietan historia guztian egin da dantza. Gizon eta emakumeek. Gaur eta hemen, gero eta mutil gehiagok dantzarik gabeko bizitza bizi du. Oso txikitatik hasten dira dantza abandonatzen, baina aurretik guztiok egin dugu dantza. 3-5 urte bitarteko ume guztiek dantza egiten dute. Berez sortzen zaien grina da. Libre dira. Mutilak askatasun hori 4-5 urterekin hasten dira galtzen, baina neskek jarraitzen dute horretaz gozatzen eta dantzaren bidez komunikatzen. Horrek panorama triste baten aurrean jartzen gaitu, zeren eta egiten ez dena ez da ezagutzen, ezagutzen ez dena ez da baloratzen eta, gainera, gutxiespenez tratatzen da. Emakume gehienek dantzarekin harreman normalizatu duten bitartean, gizonezkoek dantza gutxiespenez tratatzen badute, berriz ere genero bereizketa egin eta gutxietsitako harreman batean planteatzen ditugu jarduerak.

BOSARK
ARKITEKTOAK

Sostoatarren, 3 EIBAR 943 12 06 93
info@bosark.com

umea
Errebal, 16 943 203 164

FUNEUSKADI
Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR TANATORIO CREMATORIO LLDIBARRA

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Flutura Aliko Albaniatik etorritako 'EibartHARTUa' da. "Fluturak tximeleta esan nahi du albanieraz", esan digu. Iballe Puken jaio zen, mendiz inguratuta dagoen Albania iparraldeko herri txiki batean. "Landa gunea da eta ez dago gauza asko egiteko aukerarik". Eskolako urteak maitasunez gogoratzen ditu, "asko jolasten genuen", baina zortzi urte zituenean Tiranara (Albaniako hiriburura) joan zen bizitzera familiarekin, eta bere bizimodua aldatu egin zen. "Hasieran asko kostatu zitzaigun Tiranako bizimodura egokitzea eta lagunak egitea, hiriburuko jendeak beste toki batzuetatik zetozenak baztertzeko zitelako".

Bizimodu hobego bat

"Oso gazte ezkondu nintzen", esan digu Fluturak, eta ezkondu ondoren Albania hegoaldera joan zen bizitzera. "Familiatik urrunego eta bizimodu oso zaila zen". Beraz, bizimodu hobego baten bila irten zen handik. "Eibarren lehengusuak nituen eta eurek lagundu ziguten hona etortzeko behar genuen guztia prestatzen". Pena handiarekin utzi zuen Albania, baina Euskal Herrian bizitza berria hasiko zuen senarrarekin eta semearekin. Albaniatik Oriora joan zen lehenik, baina kostaldean hiru hilabete egin ondoren, Eibarrera etorri zen. "Etxebizitzaren errenta oso garestia zen han".

Flavia lagunentzat

Lau urte daramatza gurekin eta oso ondo egokitu da hemengo bizimodura. "Hona iritsi eta lau hilabetera lanean hasi nintzen, zorte handia izan nuen". Ordutik etengabe egin du lan. "Sasoi batzuetan goizeko seietan irteten nintzen etxetik eta gauerdian bueltatzen nintzen". Lan asko egin du Fluturak, baina lagunak egiteko eta jende ona aurkitzeko balio izan dio. "Flavia deitzen didate, maitasunez. Oso jende atsegina aurkitu

Albaniatik iritsi den tximeleta

EKHI BELAR



Fluturak tximeleta esan nahi du albanieraz.

“**Mirëseardhje për të gjithë ata që duan të vizitajnë pjesë të Albania që nuk mund të shihen nga larg!**”

“**Ongi etorriak zarete urrunetik ikusten ez diren Albaniako tokiak bisitatu nahi dituzuen pertsonak**”

dut eta oso ondo hartu nauten”. Beraz, lau urte hauek oso biziak izan arren (“banandu egin nintzen, besteak beste”), bizitzeko toki aproposa aurkitu du Eibarren. “Albaniara joan izan naizenean, Eibarre itzultzeko gogoia eduki izan dut. Ez nintzateke hara bizitzera joango”. Hala ere, gogoan du bere jaioterria, batez ere konfinamendu-sasoi honetan. Arduratuta egon arren, berri onak iritsi zaizkio handik. “Albaniar ez dituzte koronabirus kasu asko izan, zorionez. Dena dela, gobernuak oso neurri zorrotzak hartu ditu birusa ez hedatzeko”.

Gastronomia eta turismoa

Euskal Herriko eta Albaniako bizimoduen artean antzekotasunak ikusten ditu Fluturak, eta han eta hemengo jakiak egiten ditu etxean. Albaniako gastronomiari dagokionez, haragi errea, Lokror deitzen dioten pastel enpanatua eta comlek izeneko haragi erre-gosia nabarmentzen ditu Fluturak. Albania Mediterraneo itsasoko herrialde ezezaguna da eibartar askorentzat, baina bere jaioterria bisitatzeko gonbitea egiten du Fluturak eta toki zoragarriak daudela esan digu. “Adibidez, Teth Parke Nazionala, mendi ikusgarri inguratuta dagoen Tropoje eta kostan dagoen Sarande. Interneten toki horrek bilatzen badituzue, asko harrituko zarete”.

Telenobekin ikasten

Fluturak azkar ikasi zuen gazteleraz hitz egiten. “Egia esan, ez zitzaidan asko kostatu”. Izan ere, lan asko egiteaz gain, telenobelak ikusten zituen. “Hiru edo lau telenobela ikusten nituen egunero”. Euskaraz ere moldatzen da, baina euskarazko telenobela gehiago ikusi behar ditu oraindik. “Badakizkit euskarazko berba batzuk, baina gehiago ikasi behar dut”, aitortu digu. “Semeak euskaraz egiten duenez, berari esango diot artikulua itzultzeko”.

<<< **GUADALUPE IBAÑEZ • Tabernaria** >>>

“Pandemiaren joeraren esku gaude”

Ametsa tabernako ugazaba arduratuta dago eta garai txarrak direla aitortzen digu. Hala ere, eibartarrei kalegiroa eta tabernetan elkartzea gustatzen zaigula badaki eta ez du itxaropena galtzen. Jakitun bada ere normaltasunera itzultzea ez dela erraza izango. Bien bitartean, lanean hasteko gogoarekin, aurre egiten dio egunerokoari.



Nola daramazu konfinamendua?

Gorabehera askorekin. Ziurgabetasunak larri nauka: ez dakigunez bihar zer izango den, ezin zara edozer egiten hasi.

Etxean gogotsu zabilta?

Denetarako denbora dago, baita aspertzeko ere. Nire lanarekin zerikusia duten gauzeekin nabil: trago berriak ikasi... Irakurri ere egiten dut, pintzelekin margotu. Azkenaldian argazki zaharrekin nabil; eskubaloiko taldean ere argazki asko partekatzen ditugu.

Eta Ametsa tabernan zelan daramazue gaur egungo egoera?

Lankideekin harremanetan jarraitzen dut, eta arduratuta daude. Denen artean elkar animatzen saiatzen gara. Eibarko ostalariekin ere hitz egiten dut gure ardurak partekatzeko, Zubi Gaineko Txominekin askotan.

Noiz espero duzue taberna irekitzea?



Ez digute data zehatzik aipatu eta pandemia ziztrin honen bilakaeraren esku gaude. Dena garbi dagoenean bueltatu beharko ginateke, ez lehenago. Taberna lau edo bost lagunentzat zabaltzea ez litzateke egokia guretzat. Gauean sortzen den zalaparta, asteburuetakoa batez ere, ezinbestekoa dugu.

Noiz uste duzu “normaltasunera” itzuli ahal izango dugula?

Jendea horretarako desiatzen dago. Kalera berriz ateratzeko,

gertukoekin elkartzeko, tabernetara itzultzeko. Agian dena ahaztea lortuko dugu, baina ez naiz batere baikor.

Pertsonalki nola ikusten duzu zure burua?

Lanean hasteko gogotsu nago, baina nola bueltatu? Zer nolako neurriekin? Ezjakintasunak barrenak jaten dizkit. Familia eta lagunekin harremanetan jarraitzen dut WhatsApp bidez, baina ez da berdin. Hasierean shock-a izan zen; gero hau amaitutakoan jendea tro-

pelean irtengo zelakoan nengo, baina hori baztertu dut dagoeneko. Kalera derrigorrez ateratzen naizenean beldurrez ateratzen naiz.

Ados zaude hartutako neurriekin?

Noski. Ez naiz aditua eta dakitenek esaten dutena egitea ez zait besterik geratzen. Denon onerako egiten ari direla pentsatzea gustatzen zait.

Eibar eskubaloiko talde bat babesten du Ametsak. Herriko eskubaloia jarraitzen duzu?

Lehen taldeak zer egin duen galdetzen dut astebururo; nahi izaten dut jakin neskek zer egin duten, guk babesten dugun taldeaz aparte. Lana dela-eta, ezin ditut partiduak ikusi, baina emaitzak jasotzen ditut.

Denboraldia berrabiaraztea egoki ikusten duzu?

Amaitzutat eman behar dira kirol lehiaketa guztiak. Eskubaloia moduko kirolak arrazoi gehiagorekin, kontaktu askoak direlako.

BOLINTXO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko
ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)

ANDIA
HARATEGIA

ASKOTARIKO HARAGI FRESKOAK
DELICATESSEN PRODUKTUAK

T. Etxebarria, 3 943 20 17 76



Eibarko Gurutze Gorriko taldeko partaide batzuk.

<<< PAULA CORTES / NAGORE GOMEZ • Gurutze Gorriko boluntarioak >>>

“Kalean jendeak geratu egiten gaitu horrelako egoera batean egiten dugun lana eskertzeko”

Bizitzen ari garen egoeraren aurrean, Paula eta Nagore konturatu dira zein garrantzitsua den behar duenari laguntzea. Nork bere aletxo jarrita, denon artean errazagoa da egoerari aurre egitea. Eibarko Gurutze Gorriarekin harremanetan jarri ziren, eta elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuetan laguntzen ari dira, beste boluntario asko bezala. Oso pozik daude egiten duten lanarekin eta jendeak bihotzez eskertzen du euren konpromisoa.

MALEN ILLARRAMENDI

Kontaiguzue zer egiten duzuen egun hauetan.

Eibarko Gurutze Gorriko taldeko partaideak gara. Une honetan, ekarteak hiru zerbitzu eskaintzen ditu. Batetik, hainbat enpresak emandako elikagaiak banatzen ditugu kontsumitzailerentzako beharren arabera. Bestetik, etxetik irten ezin diren pertsonen farmaziako mandatuak

egiten dizkiegu, baita zaborra bota eta txakurra atera ere. Horrez gain, pasiatzera irteten gara behar bereziak dituzten pertsonekin: autistak, pertsona nagusiak... Azkenik, eta hori da gure eginkizun nagusia, SD Eibarrek emandako tabletak eta modem-ak banatzen dizkiegu horrelako baliabiderik ez daukaten umeei. Banatzeaz gain,

gailuak konfiguratzeari ere arduratzen gara, erabiltzaileak piztu eta besterik gabe erabilgarri izan ditzan.

Nola bururatu zaizue Gurutze Gorrian izena ematea? Zerk bultzatu zaituzte?

Covid-19aren kontua hasi zenean, gure artean hitz egin eta behar zuen jendeari nola

lagundu ahal genion pentsatu genuen. Inoiz bizi izan ez dugun egoera da, eta arriskuan dagoen jende asko dago besteon laguntza behar duena. Hori horrela, hainbat aukera aztertu ondoren, Gurutze Gorrian izena ematea erabaki genuen. Momentu honetan gure lanetan ez gaudenez %100ean, denbora libre gehiago dauka-

gu, eta egoera aproposa iruditu zaigu besteen alde zerbait egiteko. Gu ez gara arrisku taldeko pertsonak, beraz, gure ekarpenari esker, arriskua duten pertsonen premiak beteta geratzen dira neurri handi batean.

Badakazue anekdotarik kontatzeko?

Anekdota moduan kontatu dezakegu asko harritu gintuela jendeak zein azkar ematen duen izena txandak antolatzen direnean. Alegia, antolatzaileak WhatsApp taldean hurrengo eguneako behar den pertsona kopurua zehazten duenean, berehala betetzen dira plaza guztiak. Azkar ibili ezean, eginkizunik gabe geratzen zara (kar, kar kar). Horrek adierazten du jendeak lagundu egin nahi duela, eta hori baino seinale hoberik...

Pertsonalki aberasgarria izango da esperientzia, ezta? Zer sentitzen duzue?

Pertsonalki oso pozgarria da egiten dugun guztia, izan ere, behar duen jendearen premiak asetzean, norbera ere barrutik asetuta geratzen da, benetan pozik. Gainera, jendeak asko eskertzen du gure lana, eta oso jatorrak dira gurekin. Kalean jendeak geratu egiten gaitu esateko horrelako egoera batean asko eskertzen dela egiten dugun lana.

Ez daukazue kutsatzeko beldurrik? Zein prebentzio neurri hartzen dituzue?

Egia esan, ez dugu kutsatzeko beldurrik. Babes-neurri egoiak erabiltzen baititugu, eten-

“Behar duen jendearen premiak asetzean, norbera ere barrutik asetuta geratzen da”



“SD Eibarrek emandako tabletak eta modem-ak banatzen dizkiegu horrelako baliabiderik ez daukaten umeei”

gabe higiene neurriak zainduz. Hala ere, nire kasuan (Nagore), asma dudanez, egia da errespetu handia diodala honi guztiari. Nolanahi ere, gaztea naiz eta kutsatuz gero, pertsona nagusi

batek baino errazago egingo diot aurre gaixotasunari. Esan beharra dago gu ez garela jendearen etxebizitzetan sartzen, haiek jeisten dira pegorara dagoenkien hartzera. Jendearekin

partekatzen dugun bakarra produktua jaso-izanaren agiria da. Hortaz, uste dugu erabiltzen ditugun babes-neurri guztiakin, oso zaila dela kutsatzea. Kalitatezko materiala erabiltzen dugu, eta eskularruak eta maskarrila egunean zehar ainbat aldiz aldatzen ditugu.

Hemendik aurrera ere (egoera hau amaitzen denean) honetan jarraitzeko asmoa daukazue, edo Covid-19-aren honetan laguntza emateko besterik ez duzue izena eman?

Behin betiko boluntario izateko aukera eman digute, eta, printzipioz, jarraitzea pentsatu dugu, zeren eta konturatu baikara ez duela asko lotzen, hau da, guztiz aukerakoa dela momentu bakoitzean baietz edo ezetz esatea, egoeraren arabera, konpromiso barik. Pozpozik gaude egiten dugun lanarekin, eta, gainera, talde ona osatu dugu boluntario guztion artean, beraz, primeran pasatzen dugu.

Norbaitek Gurutze Gorrian izena eman nahi badu, zein pausu jarraitu behar ditu?

Ezin errazagoa da izena ematea: email bidez jarri behar da eurekin harremanetan, dokumentu bat bete, eta eurek sartzen zaituzte boluntarioen datu-basean. Hori eginda, zurekin harremanetan jartzen dira eta jarraitu beharreko urratsen berri ematen dizute. Gure kasuan, adibidez, Covid-19az arduratu behar zen WhatsApp taldean sartu gintuzten. Hortik aurrera, agindutakoa betetzea baino ez da egin behar.

Ego Gain, 2 **ZENTRAL OPTIKA** 943 701 408

 *Zu ikusteko irrikitan gaude* 



+ osasun gida

Dentistak



arar
Hartz Klinika

"Hartz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarar.com
www.clinicadentalarar.com
Tribuna Etxebarria 17, EIBAR


UniverSalud
Muhua, korporatua eta kolektibo handekin itundutako zentroak



bista eder
clínica dental - hartz klinika

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora gutuzen gutuz.
Ezartze eta egoeraren berri emen.

Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19
www.bistaeder.es



EIBAR • HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko eskalera
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. eskalera
Tfnos: 943 20 72 17



GASTESI
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser teknologia

Erebal, 9 - 1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02



hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4.
Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 82
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702886

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansoa
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- Fisioterapia / Errekuperazko funtzionala
- Min-Uhinetan
- Inkontinentsia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Arno izotzko prestatuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnos. 943 20 34 40 Tfnos. 943 74 33 74

Estetika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - beheko
943 206 044



Javier Martin doktorea
Aurpegi-masailetako Kirurgilaria

AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA

AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA

679 334 371
943 120 200

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar
KIRURGIAK: Policlinica Gipuzkoa

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
100 kalera aldia

- INERDIATERAPIA
- KIBRO-LESDIOAK
- IRONIAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETA
- TRATAMENDUAK

FISIOTERAPIA ZENTRUA

ARRAGUETA, 20
Tfn. 943 63 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura Martinez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



osasun gida

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

 838200124
kolegiata zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B. 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiata) - Master P.N.L.
- Trainer
Tel. 675 70 68 07

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4.....ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
GODEZ ESA ARRATZALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

Psikoterapia

 **FUB**
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Ballen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

Okulistak

 **Oftalmologoak**
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82


 BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

 **Maidor Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

• **Katarata ebakuntzak**
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 204/03 

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Asier Azkue

ASIER AZKUE

Koronabirusa eta bakardadea

Napoleonek esan zuen munduak dar-dar egingo zuela Txina jaikitzen zenean. Enperadoreak asko irakurri zuen Asiako erraldoiaren botere ekonomiko, politiko eta militarren inguruan. 200 urte geroago, Europako merkatuak Txinako produktu manufakturatuz gainezka aurkitzen ditugu. Hala ere, bertan gertatzen diren fenomeno gehienak ezezagunak egiten zaizkigu. Gutako zenbatak dakigu mende hasieran SARS birusak ia 800 txinatar hil zituela? Nik esaterako, ez nuen ezagutzen. Hain urruti gelditzen zaigu Txina...

Lerro hauek idazten ditudan bitartean 3.000.000.000 lagun baño gehiago gaude etxean konfinatuak mundu osoan. Txinatik inportaturiko Koronabirusak (Covid-19), Mendebaldeko osasun sistema guztiak kolapsatu ondoren, kilkerren antzera

"Koronabirusa gure bizitza baldintzatzen hasi zen egun beretik bakardadea bihurtu da gure buruko minik haundiena"

sartu gaitu kaiioletan. Historian gutxitan gertatu den bezala, harreman sozialetara hain ohituta dagoen XXI. mendeko Homo Sapiens Sapiens-a bere buruarekin egotera behartua izan da: gure benetako amets gaiztoa...

Koronabirusa gure bizitza baldintzatzen hasi zen egun beretik bakardea bihurtu da gure buruko minik handiena. Eta normala da, noski. Eta maite ditugun pertsonak botatzen ditugu faltan. Eta hauekin disfrutatzen ditugun momentuak... Hala ere, normaltasunera bueltatzen garenean, nork baieztatuko digu harreman horiek lehen baino gehiago baloratuko ditugula?

Pertsonalki uste dut gure horretan jarraituko dugula eta egoerak ez duela aldaketarik eragingo... Edo agian datorren hilabetetik aurrera gehiago baloratuko ditugu maite ditugun pertsonekin pasatzen ditugun momentuak. Txinatarren bizitza, aldiz, aurrera doa. Ondo etorriko litzaiguke noizean behin beraiengandik zerbait ikastea. Nork daki. Ingelera munduko hizkuntza hegemoniko moduan inposatu zen bezala, agian hemendik urte batzuetara txinatarra ikasiko dute gure seme alabek.



Amagoia Gomez

AMAGIOIA GOMEZ

Hausnarketa xume bat


Zaila suertatzen da beste gai bati buruz hitz egitea edota idaztea. Oso zaila. Ezinezkoa, esango nuke. Birus batek gizarteko zutabe nagusiak kolokan jarri ditu, gure eguneroko guztia hankaz gora ipiniz. Orain, lau paretan artean egotera derrigortuta gaude. Eta, gainera, ahalik eta isilen. Badirudi, kehatzeko aukerarik ere ez daukagula. Bakoitza bere etxean sartu, eta bere mundua babestu nahian dago, bere mikro ekosisteman birusa sartu ez dadin.

Haurrak dituztenek nahikoa lan eskolatik bidalitako zereginak egiten eta umeak pantailetatik ateratzeko ekintzak presatzen; beste batzuk etxetik, ahal duten heinean, lanean; beste asko lantegietan, ospitaletan, dendetan edota guretzako paketeak garraiatzen. Pertsona nagusiak, aldiz, beldurturik, baina zarata gehiegi atera gabe, badaezpada. Eta hobe ez pentsatzea tratu txarrak jasaten ari diren emakumeetan edota herrialde pobreetan bizi direnetan.

Hau da, birusak gure bizitzan ahalik eta eragin gutxien eduki dezan saiatzen ari gara eta normaltasunera bueltatzean ere, hala nahiko dugu. Denak berdin jarraitzea. Inolako aldaketarik gabe. Bakoitzak bere eremua zaintzen jarraituko du. Inoiz baino sutuago norberaren ongizatearengatik borrokatuz. Darwinen arabera, ingurune aldaketetara hobekien moldatuta dagoenak bizirauteko aukera gehiago ditu. Gizakiaren kasuan, gaur egun, teoria horrek lotura zuzena du aberastasunarekin.

Gero eta diru gehiago izan, aukera gehiago bizirauteko. Kapitala da gizarteko zutabe nagusia. Horretan oinarritu ditugu gure bizitza, bizimodua, pentsaera eta jokaerak. Darwinen teorian, aldiz, hautespena naturak egiten du. Ezinbestekoa da natura eta gizartearen arteko oreka mantentzea bizirik irauteko. Eta guk ez dugu premisa hori bete. Munduko aberastasun guztiak ere, ezin izan du eta ezingo du, inoiz, hori aldatu. Birus batek gizarteko zutabe nagusiak kolokan jarri ditu; zutabeek ez zituztelako naturaren legeak betetzen.

"Kapitala da gizarteko zutabe nagusia. Horretan oinarritu ditugu gure bizitza, bizimodua, pentsaera eta jokaerak"



Martxoaren 13an ikastetxeak itxi zituztenetik, ikasleak etxetik irten gabe ari dira azken ebaluaketa prestatzen.

Etxetik ikasteko erronkari aurre egiten

Koronabirusak ikasleen egunerokoa aztoratu du, eta ordenagailua bihurtu dute ikasteko lan-tresna. Batxilergoko bigarren mailako ikasleek erronka bikoitza dute: ikasketak amaitzea, gainditzea eta titulua lortzea; eta bestalde, nahikoa nota lortzea unibertsitatean edo heziketa-zikloetan sartzeko. Euren bizitza hankaz gora jarri da mundu osoa erasotu duen pandemiaren erruz. Bakarrik daude etxean eta egoera nola bizi duten jakin nahi izan dugu.

Bizi dugun egoerak tentsioa sortzen du euren artean, eta okerrera da "azken ebaluaketa honetan zer prestatu behar dugun, azterketak nolakoak izango diren edo zer gai sartzan diren ez jakitea. Ez dakigu zertan zentratu eta zer prestatu behar dugun", azaldu digute Eibar BHI In Batxilergoko 2. mailan ikasten duten Lukene Piñeirok eta Garazi Aizpuruak. Euren institutuan urrutiko eskoletara azkar egokitu diren irakasleak daude, baina beste batzuei gehiago kostatzen ari zaie eta "lan askorekin estutzen gaituz-

te", diote. Ahaleginak ahalegin, ez urrutiko eskolek ez etxeko ikasketek ez dute gelako lana ordezkatzeko.

Batxilergoko bigarren mailako ikasleek erronka bikoitza dute: batetik, ikasketak amaitzea, gainditzea eta titulua lortzea eta, bestetik, unibertsitatean edo heziketa-zikloetan ikasketak jarraitu nahi dutenen kasuan, nahikoa nota lortzea. Batxilergoko notak hautatutako karrerarako onarpen-faseko azken notaren % 60 dira; horregatik, ikasleek arduratu dute ikasturtea ahalik eta notarik onenarekin


amaitzeko. Askorentzat, nahi duten karrera ikastea hamarren kontua da. Leire Tejada La Salle ikastetxeko ikaslearen kasuan, oraindik ez du argi zer ikasiko duen, beraz, "azken nota garrantzitsua izango da erabakitzen dudana karreraren arabera".

Ziurgabetasuna da txarreña

Dena dela, Leirek lasaitasun handia hartu du Aste Santutik bueltan. "Irakasleek informazio mordo eta zehatzagoa eman digute, eta orain badakigu hirugarren ebaluaketa nolako izango den. Horrek

niri sekulako lasaitasuna eman dit. Aste Santuan oso txarto pasatu nuen. Orain beste modu batean ikusten ditut gauzak".

Informazio zehatz horren falta igartzen dute Garazik eta Lukenek. Hezkuntza Sailak irizpide orokorrak azaldu ditu, "baina guk oraindik ez daukagu argi nola ebaluatuko gaituzten. Esan digute irakasle bakoitzak ikusiko duela azken ebaluaketa nola egin, baina oraindik ez daukagu xehetasunik". Lukenek azaldu digunez, "gauzak argiago esatea eta zuzenak izatea nahi dugu. Ulertzen dugu egoera hone-



Egoera honek kontzentrazio- eta errendimendu-gaitasunean eragiten du. Hala ere, aurrera egiten ahalegintzen dira.

tan irakasleen papera zaila dela, baina uste dut moduren batean ala bestean, ikasleak lasaitzen eta gauzak argitzen gehiago saiatu beharko liratekeela. Ez dute gure egoera aintzat hartzen. Aholkuak ematen dizkigute lanak antolatzeko eta abar, baina ez dira zuzenak eta argiak, eta horrek ezinegon eta urduritasuna sortzen digu”.

Selektibitatea uztailearen 8an
Selektibitatearen inguruko ziurgabetasuna, hasiera batean aurreikusitakoa baino hilabete atzeratu baita, ikasleak kezkatzen dituen beste gai bat da. “Selektibitatea hilabete atzeratu digute. Uztailearen 8an egingo dugu, baina, aurrez aurre egin ahal izango dugu? Gertatzen ari den guztiarekin nola sartuko dituzte ehun pertsona gela batean?”, dio Garazik. Zalantzak dira

nagusi gazteen artean: “Esaten digute udan ezingo garela igerilekura joan, eta gela batean sartuko gaituzte? Ez dauka zentzurik”. Egoera horrek eragin dituen “nahasmena eta segurtasun eza” aipatzen ditu. Egunak igaro ahala “egokitzen saiatzen zara, baina uste dut psikologikoki ez gaudela prest

hilabete barru azterketa bat egiteko. Presioa oso handia da eta oraindik gauza asko daude airean”, uste du Garazik.

Krisi honen osasun-egoerarekin eta ondorio sozial eta ekonomikoekin arduratuta daude, eta, zalantzarik gabe, kontzentrazio- eta errendimendu-gaitasunean eragiten du. Leirek azaldu duenez, “nik lehen beti etxetik kanpo ikasten nuen, liburutegian. Orain egoera honetara egokitzea oso zaila izan da. Momentu batean asko haserretu nintzen irakasleekin, azterketa mordoa jartzten hasi zirelako. Egoera hau benetan gogorra da. Etxean ez gaude bakarrik, familia osoa gaude, bakoitza bere gauzak egiten. Lehen Historiako gai bat ikasteko hiru ordu behar banituen, orain sei behar ditut. Eta hori ere kontuan hartu behar da. Hasiera oso gogorra

"Bat-batean lan pila bat dauzkagu, eskolan egiten genituenak baino gehiago ziurrenik"



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

izan zen. Orain, nire kasuan, uste dut irakasleek ere ulertu dutela, eta lasaitu egin dira”.

Leirerekin bat dator Lukene: “Egun guztia etxean egonda, kalera ezertarako irten gabe, oso zaila egiten da ikasketak berdin eramatea. Lehen kalera irteten zinen, burua “despejatzan” zenuen eta ikasten jartzen zinen. Baina orain ezinezkoa egiten zait, adibidez, Historia ikasten jartzea”.


Etiket lanean

Online plataformetara igotzen dizkiete egin beharreko lanak eta horretarako behar duten materiala. “Etiket ari gara lanean, baina ez da berdina. Bat-batean lan pila bat dauzagu, eskolan egiten genituenak baino gehiago ziurrenik. Zalantzaren bat edukiz gero, ordenagailu bidez argitu behar izaten dute, eta zailagoa da. Bakarrik gaude etxean; ikastetxean gaudenean errazagoa da azalpenak ulertzea: ikasleen artean berba egiten dugu (horrek psikologikoki asko laguntzen du), eta irakasleak ere hor ditugu. Baina saiatzan gara ahal dena egiten», diote.

Saioa Candelas Aldatze ikastetxeko ikasleak ere berdindimentsatzen du: “Irakas-

"Zalantzaren bat edukiz gero, ordenagailu bidez argitu behar izaten dute, eta askoz zailagoa da"

leek etengabe bidaltzen dizkigute lanak eta oso denbora laburrean egin behar ditugu. Eurek, aldiz, denbora gehiago ematen dute gure lanak zuzentzen edo gure zalantzei erantzuten. Eta oso arduratuta gaude orandik ez dugulako oso argi azken ebaluaketa nola baloratuko duten. Hori bai, azken nota jartzeko, lehenengo bi ebaluaketetan egin genuena oso kontuan hartuko dutela esan dute, eta horrek nolabaiteko lasaitasuna ematen dit. Gure alde daukagun gauza bat irakasleekin daukagun konfidantza da. Gure kasuan, aspaldi ezagutzen ditugu eta eurekin dugun harremana oso



estua da. Online ikastea esperientzia guztiz berria izan da guretzat. Ez geunden ohituta, eta ez da erraza”.

Klasera bueltatuko gara?

Hezkuntza Sailak aurreikusuten du, osasun-irizpideek horretarako aukerarik ematen badute, DBHko 4. mailako ikasleak, Batxilergoko bi mailakoak eta Lanbide Heziketako lehen mailatan daudenak jarduera presentzialera itzuliko direla. Horren gainean galdetu diegu, eta eurentzako onuragarria izango litzatekeela uste dute. “Modu horretan gure bizitza berreskuratuko genuke, gure ikasketetan

gehiago zentratuko ginatke eta hain garrantzitsuak diren harremanak berreskuratuko genituzke”.

Normaltasuna amets

Une txarretatik ondorio positiboak atera dituzte. Saioak lasai egoteko eta gustoko dituen gauzak egiteko aprobetxatu du, marrazteko, esate baterako. Garazi errutinara bueltatzeko desiatzen dago: “Lehen beti ibiltzen nintzen agobiatuta (klaseak, eskolaz kanpokoak, musika...), baina orain nire egunekotasunaren falta sumatzen dut, eta bizitza normala egiteko desiatzen nago”. ■

E
IBONE
ESTETIKA

*Indartsu eta gogotsu
bueltatuko gara!*

Laster arte!!!

📞 943 20 16 01

📍 ROMUALDO GALDOS, 10B



baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak

Pinturak

Dekorazioa

Errebal, 21

943 201 922

www.bagliettoeibar.com

bagliettoeibar@kaixo.com

<<< **IBON ARAKISTAIN** • Aspe pilota enpresa >>>

“Udarako pilota-jaialdi guztiak pikutara joango dira”

Hogei urte bete dira aurten eibartarra Aspe pilota enpresan lanean hasi zela. Aurretik ...eta kitto!-n lankide izan genuen gaur egun Aspeko komunikazio arduraduna da. 30 lagun (euretako 22 pilotariak) ditu plantillan gure herrian egoitza duen enpresak eta alarma egoera ezarri zutenetik ERTE-a (aldi baterako lan erregulatzeko espedientearekin) aurkeztu zien. Arakistainek zaila ikusten du etorkizun hurbilean.

Alde batetik bestera geratu barik ibiltzera ohituta zegoen dagoeneko Ibon Arakistain, urteotako esperientziaz baliaturik eguneroko martxari bere puntua hartuta, pandemiak sortutako alarma egoerak bere etxean gordetzera eramanean. Aspeko komunikazio arduradunak “enpresa eta hedabideen arteko bitartekari lanak” ditu funtzio nagusia. Aspeko ordezkaria ere bada “ekipazio, kamiseta eta babesle kontuetan” eta horren inguruko bileretan izaten dugu. Berak txantxetan dioen bezala, “nire funtzioak kenduta, beste guztiak”.

Fernando Vidarte da Aspeko administratzaile bakarra, baina ez dira Ibon eta bera eibartar

bakarrak: “Nagore Cabrera administrazioko arduraduna eta Olaya Gallastegi takilla arduraduna, eurak ere Eibarkoak dira”. Alarma egoera piztearekin batera, Baiko eskuzko pilota profesionaleko beste enpresa handienak ERTE-a aurkeztu eta bi egunera aurkeztu zuen berea. Aspek, “aginariak berriro kirol jardunari ekiteko aukera ematen duten arte”.

Pilotariak euren sasoiari eustea ez dutela erraza aitortzen digu Arakistainek: “Normalean hainbat pilotarik elkarrekin egiten dute lan, prestatzaile fisiko batekin; eta halakoak ezin aurrera eramanean gaur egun. Horren ordez, fisikoari eusteko euren etxeetan egin beharrekoak badituzte, baina ezin dute eskurik



Ibon Arakistain Juan Martinez de Irujorekin.

egin”. Frontoira joan ezinean, garaje eta sotoetako hormak bihurtu dituzte entrenatzeko toki: “Jokin Etxaniz kirol teknikari eta prestatzaile fisikoarekin ere ezin egon, pesarik ez dute etxean... Hala moduz moldatu behar”.

Aurrera begira, arazo handienak kirol-ekitaldiak bertan behera geratzetik etorriko direla uste du: “Luzerago begira ere kezka da nagusi, noiz hasiko garen ere ez dakigulako”. Baiko eta EiTb-rekin adostu beharreko hainbat puntu ere badaude tartean. Ez du baztertzeko atea itxita partiduak eskaintzea telebistaz, “baina aurretik pilotariak denbora beharko dute, egonaldi honetatik irten ondoren eskuak lantzeko”.

Etorkizun hurbilean, “baimena emango baligute, binakako txapelketa amaitzea izango litzateke lehena eta, udako jai guztiak bertan behera geratuko direnez, buruz-burukoa dataz kanpo hasteko moduan geundekete”. Pilota-zaletu gehien batzen dituen Sanferminetako jaialdiek agur esan dute eta “publikorik gabe jaialdirik antolatzea ez du merezi”.

Bestela, kirol mailari dago-kionezm pozik egoteko moduan dago eibartarra, azken hiru-lau urtetan Aspeko pilotariak txapelketa garrantzitsu guztiak bereganatu dituztelako: “Azken urteotan plantilla gaztetu dugu eta bikain erantzun dute, euretako batzuk txapelak jantzita”.



Jose Ignacio Torres Ibañez

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 63 urte zituela

**Eskerrik asko elkarrekin bizi izandako guztiagatik.
EPAn izan dituzun ikasle eta lankideen gogoan betiko.**



"GASTESI HORTZ KLINIKAN segurtasuna dago guztiaren gainetik"

Ane Gastesi Larrañaga
GASTESI HORTZ KLINIKAKO dentista eta arduraduna da. Covid19 krisiak bere lanbidean nola eragin duen eta horri aurre egiteko zein pausu eman behar izan dituen azaltzen digu.

- Zelan bizi izan duzue Covid19ak eragindako krisia zuen sektorean?

Hasieran, jende guztiak bezala, sekulako beldur eta nahasmenarekin. Egoera sinestezina iruditzen zitzaigun benetan, orain arte horrelako egoerarik ez baitugu bizi izan. Beraz, aholkatzen zigutenari uneoro kasu eginez, itxi egin behar izan genuen egun batetik bestera, guztion osasunari lehentasun osoa emanez. Hala eta guztiz ere, larrialdi erantzun diegu ahal zen neurrian.

Behin hasierako shock-a pasata, ziurgabetasun handia sentitu dugu ez genekielako egoera horrek zenbat iraungo zuen. Edozein enpresa txikitik bezala, negozioaren kudeaketa ez da erraza izan. Eguneroko dekretu eta lege berriak argitaratzen dituzte, baita arlo profesionalekoak ere, eta horiek interpretatzerako orduan zailtasunak aurkitu ditugu.

Baina orain, osasun mailan egoera nahiko kontrolatuta dagoela ikustean, eta alarma egoeraren amaiera hurbiltzen ari dela, lanerako itzulera antolatzen ari gara.

- Zelako segurtasun neurriak hartu dituzue zuen hertz klinikan?

Aurretik ere ohituta gaude hertz klinikan beti babes neurriekin lan egitera: aurpegiko maskarak, babes pantailak edota betaurrekoak, bata bereziak, eskularruak... Eta baita lan-eremuak desinfektatzera ere; eguneroko



koa izan dugu beti. Orain, noski, neurri horiek indartzeko garaia da, eta buru-belarri dihardugu lanean neurri berri horiek gauzatzeko: inbertsio berriak, protokolo zehatzak... Pazientea kontsultara etorri aurretik arriskuko pazienteak ez dela ziurtatuko dugu. Behin kontsultan, bertara sartu baino lehen, babes neurri bereziak jarriko dizkiogu, baita behin gabinetean sartzen denean ere. Dentista, higienista eta laguntzaileentzat ere, kutsadura arrisku mailaren arabera, EPI mota desberdinak izango ditugu. Ez dakiguna da gure pazienteek kapa guzti horien azpian ezagutuko ote gaituzten...

Neurri guzti horietara ohitu beharko gara. Gure lantokietan ezezik, gure eguneroko bizitzan ere denontzat ezagunak diren neurriak seriotasunez bete beharko ditugu.

- Zer esango zenioke izututa dagoen jendeari?

Bizitza honetan %100eko segurtasuna ez dela existitzen: gure etxeetatik ateratzen garenetik, eta eguneroko erosketak egitera goazenean ere, arriskua dagoela. Lehen aipatutako neurri guztiak ondo bete ditugunez, gure hotz klinika oso toki segurua izango da.

Orain inoiz baino gehiago, gure osasuna zaintzeko ardura izan behar dugu. Ezin dugu ahaztu gorputz guztia bat dela eta hor aho-osasuna oso garrantzitsua dela. Ahoko osasuna zaintzen dugun neurrian, gure osasun guztia zaintzen ari gara, eta horrek gaixotasun askoren aurrean babestuko gaitu.

Gure pazienteekin elkarlanean aritzen bagara, ziur nago egoera gogor honetatik indartuta aterako gara!

GASTESI

Clinica Dental - Hertz Klinika

Errebal, 9 - 1.C

943 700 090 - 688 689 602

<<< JOSEBA BARRUTIA • Arno DJ >>>

“Egun triste hauetan bizipoza sortzen badugu, ni pozik”

Sasoi tristeari aurpegi alaia jartzen ahalegintzen da Joseba Barrutia ‘Arno DJ’ eta Sautsi musikaz girotzen du asteburuetan. Jendearen erantzuna bikaina izan da eta auzo guztiak hartzen du parte dantza eginez, abestiak eskatuz edo zarata eginez. Errepertorio zabala eskaintzen du Josebak eta bizilagunen gustu musikalak asetzeko prest dago. Dena dela, Joseba plaza gizona da, bere musikaz gozatzen duen jendearen aurpegiak ikustea gustatzen zaio eta kontzertuetan argazkiak egiteko irrikitan dago.

Etxealdian gaude, baina txoritxo batek esan digu DJ lanean jarraitzen duzula. Nola?

Hori da! Barixaku, zapatu eta domeketan, 19:45etik 20:30era, musika jartzen dut auzokoentzat. Konfinamendua hasi zenean, etxean asperuta, tristura sentsazioa igarri nuen inguruan. Beraz, eskura ditudan baliabideekin jendeari zerbait eskaini nahi nion eta, musikaria naizenez, musika saioak eskaintzen hasi nintzen.

Nolako saioak izaten dira?

Umeentzako musika eskaintzen hasi nintzen, baina gero nagusientzako musika ere gehitu nion errepertorioari. Umorea altxatzeko musika eskaintzen saiatzen naiz. Saioak suabe hasten dira, umeentzako abesti gozoeekin; 20:00etan musika gelditzen dut, txalo egiteko; eta gero, giroa gehiago animatzen dut poliki-poliki. Euskal musika jarri ohi dut, baina baita erdalduna ere, Sautsin erdaldun asko dagoelako, eta jende guz-



R.P.S. 219/18

elortza+ Momentu hauetan ere **zuen ondoan!**

www.elortzabotika.com
ONLINE DENDA

J. Gisasola, 18
943 20 61 00

etxean geratu, online eskatu eta etxean jaso

tiari gustatzen zaion musika jartzea gustatzen zaidalako. Amaieran, 20:30ak inguruan, Donostiko Martxa jartzen dut, eta bizilagunek kazolak, poto zaharrak eta bestelako tresnak jotzen dituzte musikari laguntzeko. Abestia amaitzerakoan demaseko burrunbada sortzen da.

Auzoko jende askok hartzen du parte?

Bai! Hainbat bozgorailu jarri ditut musika ahalik eta jende gehienari iristeko eta jendeak eskertzen du. Mezuak bidaltzen dizkirate eta deitu egiten didate, saioetan jendea zoriontzeko edo agurtzeko, edota abesti bat edo beste eskatzeko. Horrela, egunean hiru ordu laurdenez jendea leihora irteten da eta momentu ona pasatzen dugu. Egun triste hauetan bizipoz hori sortzen badugu, ni pozik.

Untzagan eskaintzen zenuen saioetan bezala, baina etxetik.

Bai, horrelako zerbait. Pena da etxetik ezin dudala jende asko ikusi, asko gustatzen zaidalako jartzen dudana musikarekin jendeak nola pasatzen duen ikustea. "Dantzan egongo dira? Gustatuko zaie?", pen-



“Umorea altxatzeko musika eskaintzen saiatzen naiz”

tsatzen dut. Tira, baietz esaten didate behintzat.

Aratosteetan musika jarri behar zenuen Untzagan, baina

“Jendea plazan ikustea da nire plazer handiena”

Zaldibarren gertatutakoaren ondorioz bertan behera utzi zenuen, eta gero koronabirusa iritsi zen. Nola bizi duzu sasoi hau, plazatik urrun?

Urte madarikatua eibartarrontzat! Jai, ezkontza eta beste hainbat ekitaldiren saioa da hau eta ezin izango dugu ezer egin. Tabernak eta jatetxeak itxita, jairik gabe... Koronabirusak demaseko txikizioa eragin du. Etxean hainbat gauza egin ditzaket musikarekin, baina ez da gauza bera. Musika saioak online eskaini daitezke, baina ni beti izan naiz plaza gizona eta jendea ikustea gustatzen zait. Plazan dagoen jendearen arabera abesti bat edo beste jartzen dut, eta gauza bera sare sozialen bitartez egitea zaila da. Jendea plazan ikustea da nire plazerrik handiena. Etxetik ezin dugu horrelakorik egin, baina etxean egotera behartuta gaudenez, beste gauza batzuk ikasteko eta musika berriak entzuteko aprobetxatzen dut.

Argazkiak egitea ere gustoko duzu. Orain bertan zein argazki egin nahiko zenuke?

Urbiako zelaian jarrita egotea gustatuko litzaidake, fondaren ondoan, eta urrutian Aizkorri ikustea, gorri-gorri. Argazki hori dut buruan. Etxealdia amaitzen denean joango naiz argazkia egitera.



Cristina Baz Larrañaga
ABOKATUA

Lege-aholkularitza gaurkotuena eskaintzen dizugu
zure kasua sakon aztertu eta irtenbide onena emateko

Fermin Calbeton, 4 - 3. esk. (Untzagako dorrean)
www.cristinabaz.com

telefonoa: 943 12 80 55
cristinabaz@icagi.net



#NikEtxeanEsperimentuak maiatzerako egutegia prest

Apirilean ekimenak izan duen arrakasta ikusita, Elhuyarrek neuronak eta irudimena asintzeko erronkaz betetako #NikEtxeanEsperimentuak egutegia argitaratuko du berriz. Maiatzaren 4tik aurrera, astelehenetik eguenera erronkak kaleratuko dituzte eta barixakueta, berriz, iker-tzaile gazte batekin solasaldia. Azken hori izango da, hain zuzen, beritasun nagusia: Lehen elkarrizketa Maitane Alonso Monasterio medikuntza-ikaslearekin egingo dute: "Ikerketa da bere pasioa, eta, orain bizi dugun egoerarako aholkua ere eskatuko diogu". Artikoan klima-aldaketaren ikerketan dabilen Naima El Bani Altuna bilbotarra, beste planetetako atmosferak iker-tzen dituen Itziar Garate Lopez astrofisikaria eta telekomuni-kazio-ingeniarria, musikaria eta Big Dataren apasionatua den Lorea Argarate Zubia ere

elkarrizketatuko dituzte. Erronkek gazteen irudimena eta neuronak astinduko dituzte: hologramak sortu, barazkietan dauden margoak erazi, motorrik gabeko hegazkinak eraiki... Elhuyarren Bizilabe-ren web-gunean (bizilabe.elhuyar.eus) egongo dira ikusgai egutegia, erronkak eta elkarrizketen bideoak. Orokorrean 10-15 urte bitartekoei zuzendutako ekin-tzak izango dira, "den-denak etxean dauden baliabideak erabiliz eta etxetik bertatik gauzatzeko modukoak". Eta familian zientzia eta teknologiarekin lotutako jarduerak bultzatzeko asmoz, gurasoak haur txikiagoekin ere erronkak egitera gonbidatu nahi ditu Elhuyarrek. Horrekin batera, etxean egindako erronkak sare sozialetan zabaltzera animatu nahi dute jendea, horretarako #NikEtxeanEsperimentuak traola erabilia.



Etxealditik Euskaraldira maiatzaren 3an amaituko da

Ekimen bateratuarekin agurtuko dugu Euskaraldiaren eskutik egunotan martxan dagoen #EtxealditikEuskaraldira ekimena. Apirilaren 24az geroztik, egunero ari dira proposamen bat zabaltzen, gure hizkuntza ohiturak astindu eta euskera gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzera animatzeko. Zapatuan etxeokoen jolasean euskeraz aritzeko gonbidapena jaso genuen; domekan lagunekin erabiltzera animatu gintuzten, tragoa hartzean edo pintxo potean, dendara goazenean... Azken proposamena bihar jasoko dugu eta, amaiera bateratua, berriz, maiatzaren 3an izango da.



Trio Medianoche etxetik kantuan

Konfinamendua arintzeko asmoz, artista asko ari dira etxetik saioak eskaintzen, batzuk bakarka eta beste batzuk, berriz, taldean, interneteko plataforman ezberdinek horretarako ematen duten aukera aprobetxatuta. Trio Medianoche taldekoak ere animatu dira eta, bakoitza bere etxean egon arren, modu birtualean elkartu dira "Para que no me olvides" izenburuko kantua elkarrekin jotzeko eta, bide batez, jendeari etxean geratzeko gogoratzeko. Pedro Bartrak, Jesus Mari Bastidak eta Bernardo Aguilera osatutako hirukoteak bere Facebook orriaren bitartez partekatu du bideoa eta, normala den moduan, jendeak pozarren hartu du.



28 urte eibartarron zerbitzura


AHOLKULARITZA eta GESTIOA

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C

Animo guztioi!

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com



Etxealdiko eguneroko dosia

Egunean Behin jokoak dosi bat eskaintzen digu egunero. Etxealdia jasangarriagoa egiteko nahikoa. Ahalik eta denbora laburrenean hamar galdera asmatzea da kontua. Beraz, saiakera horiek dosi txikietan hobe. Aste batzuetako etenaldiaren ondoren, berriz ere gure mugikorretan dugu egunero euskaldunon ezagutza-gogoak asetzen dituen pilula.

Egunean Behin jokoak laugarren denboraldia hasi zuen astelehenean. Hamar aste iraungo du eta utzailaren hasieran amaituko da. “Saikapen orokorra izango du honek ere, aurrekoak bezala, aurrekoaren logika bertsuarekin: hamar astetatik, jokalaria bakoitzari bost onenak zenbatuko zaizkio. Saikapen orokorreko onenek finala izango dute. Presentziala izango ote den... ez dirudi erraza, baina bestela bidez zuzenean emango dugu”, diote Codesyntaxekoek, jokoaren sortzaileek.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Saila izango da laugarren denboraldiaren babeslea, eta Etxealditik Euskaraldira kanpainarekin egin du bat. Aste honetako saria, adibidez, liburu-bilduma bat izango da (‘Amek ez dute’, ‘Miñan’ eta ‘Neguko Argiak’, eta Egunean Behin opariak).

Denboraldi honetan galdera sorta berri asko estreinatzea espero du Codesyntaxek. “Guk garatutakoez gain, EHUrekin eta Informatika Fakultatearekin antolatutako galderak programatikoki sortzeko lehiaketatik ideia mordoa etorri ziren,

Astelehenean hasi zen Egunean Behin jokoaren denboraldi berria

eta asterik aste aktibatu nahi ditugu”.

Markak hausten

Codesyntaxek sortutako jokoak marka guztiak hautsi ditu eta euskaldunon joko faborito bihurtu da urtebetean. Zifrek

ez dute gezurrik esaten. Hirugarren denboraldiko azken asteetan, 80.000 erabiltzaile izan zituen asteko, baina 100.000 lagunek jokatu dute partidaren bat honez gero.

Hirugarren denboraldiak amaiera apoteosikoa izan zuen. Koronabirusaren ondorioz alarma-egoera ezarri zen eta, berrogeialdia atseginagoa egin asmoz, Egunean2 egitasmoa jarri zuten martxan. Gero, denboraldia birbiltzeko, final handia jokatu zen YouTube bitartez, Edurne Azkaratek aurkeztuta, eta Eñaut Arretxea segurarrak irabazi zuen.

Eskusutxo-Avelina
#Eibarrenbadakagu

Narruzko osagarriak, ilerako apaingarriak... eta gehiago.

Estazio kalea, 16
617 265 575 (Avelina)
676 792 144 (Usua)


ARKIGREEN
· Arkitektura eraginkorra · Arquitectura eficiente ·

Bista-Eder kalea 9, behea 943 54 34 14
www.arkigreen.eus arkigreen@arkigreen.eus

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak **Lizar**, errepublika egunian 7 urte! Laister elkartuko gara familia osua, elkarki 7 milla muxu eta 7 milla besarkada emoteko. Eutsi txapelduna!

Zorionak, **URKO!!** Hillaren 26xan 6 urte bete zenuzuen-eta. Zelako egun berezixa izan zan. Segi hain jator! Musu haundi bat, batez be Anarren partez.

Zorionak, **LAIA!!!!!!**, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo mordo bat etxeko danon eta, batez be, Eritz eta Ekhiren partez. Oso ondo pasau!!!

Hildakoak

- **Paulina Sarrabe Ansola.** 89 urte. 2020-IV-22.
- **Agustin Zendoia Elorza.** 81 urte. 2020-IV-24.
- **Jesusa Alberdi Urriola.** 97 urte. 2020-IV-26.

Farmaziak

- EGUENA 30**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- BARIXAKUA 1**
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- ZAPATUA 2**
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- DOMEKA 3**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ASTELEHENA 4**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18))
- MARTITZENA 5**
EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19))
- EGUAZTENA 6**
EGUNEZ | Mendiñeta (Urkizu, 6)
- EGUENA 7**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- BARIXAKUA 8**
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2020an,
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Denborapasak

				6	8	1	
			2	7			
1		6				2	7
		5	1	2			7
2		4				9	1
	1			9	3	5	
3		2				7	4
			9	2			
	9	1	5				

SUDOKUA


9	2	6	7	1	5	1	6	9
9	2	1	2	6	9	4	7	1
7	6	1	1	9	9	2	2	6
2	9	5	6	9	1	1	1	9
1	9	6	5	9	1	7	6	2
6	1	7	9	2	1	9	9	6
1	2	2	6	9	9	9	7	1
6	9	9	1	1	2	6	9	6
6	1	9	9	7	6	2	1	2

soluzioa

Q	H	P	D	S	B	A	F	O	W	E	N	F	H	S
N	N	X	X	A	I	I	M	A	P	V	K	L	R	A
E	M	I	G	G	A	K	S	P	Y	L	R	L	O	G
L	M	E	Z	A	F	G	E	A	X	C	B	J	O	A
T	X	N	A	R	A	G	Y	L	B	B	U	P	O	R
Z	C	R	R	B	Q	X	I	A	Q	X	A	I	E	T
A	X	L	A	I	A	K	K	T	E	M	L	T	V	E
R	M	W	J	T	S	L	X	E	D	K	T	X	Z	G
T	C	O	X	S	O	J	Y	G	Q	D	Z	A	S	I
Z	E	N	T	A	L	B	K	I	G	Q	U	R	I	E
A	X	B	J	N	A	M	C	U	E	S	B	G	O	T
G	Z	T	P	L	B	Z	M	C	G	W	A	A	M	A
A	Y	X	J	K	E	E	Q	C	A	N	R	I	D	S
S	X	A	E	X	R	F	M	M	Z	E	R	N	M	A
W	S	R	U	O	R	P	H	M	E	O	E	R	J	N
P	T	A	A	A	I	O	R	J	L	K	N	H	M	S
Q	T	K	C	R	G	G	O	T	A	A	Q	M	E	A
Y	A	U	S	B	A	T	D	D	I	N	K	N	R	B
S	S	A	A	O	F	R	Q	W	Z	T	P	B	T	U
C	U	C	N	H	P	L	V	J	M	A	H	L	X	R
K	A	J	R	K	U	S	J	C	Y	B	I	A	E	U
A	M	N	O	O	V	U	I	S	H	R	X	U	T	D
R	E	L	M	A	Z	N	Y	N	O	I	U	D	E	M
M	E	Y	A	H	Q	H	P	E	O	A	A	Y	W	R
A	B	O	N	E	T	Q	C	L	P	U	O	S	M	Z

EIBARKO BASERRIAK aurkitu

- | | | |
|---------------|---------------|----------------|
| - Altzubarren | - Eltzartzaga | - Sagarbitsa |
| - Apalategi | - Ixua | - Sagartegieta |
| - Asolaberri | - Kantabria | - Sanroman |
| - Asua | - Mertxete | - Sansaburu |
| - Egazelai | - Pitxargain | - Txarakua |



EIBARKO TXORI IZENAK kokatu laukietan

- arabazozo
- belazar
- birigarro
- eskillaso
- gautxori
- kuku
- mika
- mika
- oillagor
- paranda
- txinbo
- txirixo
- txitxalapur
- usotortola
- zozo


Zergatik erosi herriko dendetan ?

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako.
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako.
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako.
- 4 Komunitatea indartzen dugulako.

**Denok
irabazten
dugulako**

Eibarren
badakagu



**OSPITALERATUAK:**


Apirilaren 28ko datuek jaitziera adierazten dute ospitaleratuaren artean. Atzo baino 3 lagun gutxiago daude ingresatuta Eibar eta Mendaroko ospitaletan. Mendaron lagun bat gutxiago dago eta Eibarren aldiz bi gutxiago. Guztira 49 lagun daude ospitaleratuta, orain dela astebete baino 17 lagun gutxiago.

EIBAR + KASU BERRIAK:

Apirilaren 25etik ez zen kasu berrik atzematen Eibarren, baina azkeneko txostenak apirilaren 28an 4 kasu atzeman direla jasotzen du. Aste honetan eman den hazkunderik handiena bada ere, urruti dago apirilaren 15ean atzemandako 27 positiboetatik.

DEBABARRENA:

Guztira 434 dira Debabarrenean pilatutako positiboak. Metatutako kasuen %46,77 pilatzen da Eibarren.



IÑAXIO ZUBELDIA ARRIETA

(2020 Martxoak 14)

“Aho-soinu ta trikiti doinuko

Bolantetik bizitzaren lekuko

Besarkada estu ta gertuko

Zure itzala ez da gaur galduko”

ZURE FAMILIA



Esteban Plazaola Zubizarreta

III. Urteurrena (2017-V-3)

“Zure falta beti nabaritutako dugu gure bizitzan; zuk utzitako hutsunea ez baitu ezerk beteko. Baina argi izan zuk landatutako hazia behar bezala zainduko dugula”

Izugarri maite zaitugu.

AMATXO, JAIONE ETA LEIRE



Nahi bezain urrun
iristeko aukera
www.aldatze.eus



ALDATZE

Col. Sta. M^o de la Providencia
ALDATZE Ikastetxea
Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR
Tfnoa. 943 70 11 50 www.aldatze.eus

AURREMATRIKULA



aldatze
haur-eskola

American High
School Diploma
www.academica.school



ACADEMICA
INTERNATIONAL
SCHOOL

aldatze
batxilergoa



**ISOLAMENDUAK
ERREFORMAK
ERAIKIN ERREHABILITAZIOA
OBRAK ETA PROIEKTUAK**

943 57 41 03 Jose Antonio Gisasola, 1 www.islamientosjmr.com



Imajinatu Batxilergoa Eibarko La Sallen

✓ **Artezkoa**

✓ **Giza eta gizarte zientzietakoa**

✓ **Zientzietakoa**

Aurrematrikula zabalik:
Maiatzaren 4tik 22ra



623189058



www.lasalleeibar.com



azitain@lasalle.es

